



KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: B GUTUN-AZALAREN IREKIERA

Espedientea:	Espediente zk.a.: 2026KOPR0007 Kontratazioaren xedea: Askagain - Gorlako kantiaren ustiapenaren kontratazioa
Eguna:	2026/07/30
Ordua:	10:00
Bertaratuak:	Presidentea: Maite Usabiaga Uranga Udaleko Alkatearen ordezkaria Bokalak: Xabin Juaristi Arrieta, Bergarako Udaleko Idazkaria Ainhoa Larrañaga Berriozabal, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailearen ordezkaria Joseba Aizpurua Lauzirika, Udal Teknikari agronomoa Idazkaria: Nere Arenaza Ibarguren, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria
A gutun-azalen edukia onartzea	“A” gutun-azalaren irekieran ondoren egindako errekerimendua eta gero. Ikusi da eskatutako dokumentazioa zuzena dela. Kontratazio Mahaiari jakinarazten zaio, Eva Lanzos Romero lizitatzailerak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu dela Europako Kontratazio Agiri Bakarrean (EKAB), III. zatiko B atalean (Zergak ordaintzeari edo Gizarte Segurantzako kotizazioei buruzko arazoak) lizitatzailerak adierazten duela egunean dituela zerga-betebeharrak. Hala ere, Kontuhartzailetza Zerbitzuari egindako kontsultaren ondorioz, lizitatzailerak horrek ez ditu egunean zerga-betebeharrak, eta, beraz, EKABen jasotako aitorpena ez dator bat lizitatzaileraren benetako egoerarekin. Ondorioz, Mahaiak ikusi du Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzekeko debekua dagoela, eta aho batez, erabakitzen da: Lehen. Eva Lanzos Romero lizitatzailerak lizitazio-prozeduratik kanpo uztea, zerga-betebeharrak egunean ez dituelako, Kontu-hartzailetza Zerbitzuak zerga-administrazio eskudunari egindako kontsultaren bidez egiaztatuta eta lizitatzailerak EKABean egindako erantzukizunpeko adierazpenarekin kontraesanean baitago. Bigarrena. Lizitatzailerak horrek aurkeztutako B gutun-azala ez irekitzea.



	Hirugarrena. Kontratazio prozedurarekin jarraitzea gainerako lizitatzailerak onartuekin
B gutunazala irekitzea	Gauzak horrela, jarraian "B" gutun-azala ireki da, honako emaitzarekin: • Griselda Llada Vera (54265480Q): Eskaintza teknikoa aurkeztu du. Ondoren, bertaratutako mahaikideek aho batez erabaki dute Udal Teknikari Agronomoaren balorazio txosten teknikoa eskatzea.

Hamarrak eta hogeirenean, lehendakariak amaitutzat eman du irekitze-ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA**

Sinatuta: **IDAZKARIA**

Esp.: 2026KOPR0007



EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>



EKS | CSV: SINAa785f779-1110-44f9-a07d-925a436f1799

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>